

Nork eska dezake?

Hernanin kokatuta dauden komertzioek.

Diru-laguntza jasotzeko baldintzak

- Errotulua euskaraz jartzea.
- Testua zuzen idatzita jartzea.
- Errotuluan izen propioa soilik ez agertzea.
- Establezimendu berriek nahiz errotulua aldatu nahi duten zaharrek jaso ahal izango dute laguntza.
- Establezimenduetako nahiz ibilgailuetako errotuluak lagundu daitezke.

Diru-laguntzaren zenbatekoa

Euskara hutsez idatzitako errotulua: errotuluaren kostuaren %75, gehienez ere 400€ .

Aurkeztu beharreko agiriak

- [Eskaera-orri normalizatua](#).
- Naren edo IFKren fotokopia.
- Gastuaren justifikazioa.
- Errotuluaren argazkia.

Nola eskatzen da?

- 🖐️ **Aurrez aurre:** hhz-Herritarren Harrera Zerbitzuan (Udaletxeko beheko solairuan).
 - Astelehen, asteazken eta ostiralean : **08:00 – 14:00** (urte osoan zehar)
 - Astearte eta ostegunetan: **08:00 - 18:30** (irailtik ekainera)
 - Uztaila eta Abuztuan astelehenetik ostiralera **08:00-14:00**
- ☎️ **Telefonoz:** Ezin da telefonoz eskatu. Dena den informazio gehiago eska dezakezu, edo eskaera eta informazio-orria etxera bidaliko dizkizugu, **943 337029** telefonora deituz.
- 💻 **On-line:** [Zerbitzu telematikoak](#) erabiliz ere erregistratu daiteke idatzi bat eta horri atxikitako agiriak.

HERNANIKO UDALA, hhz-Herritarren Harrera Zerbitzua
Gudarien plaza 1 - 20120 | TEL. 943 337 000 - FAXA 943 552 696
e-posta: hhz@hernani.eus | www.hernani.eus



Hernaniko
Udala

euskara
ari du

